PCTI 2030
RIS3EUSKADI

innobasque
Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana Euskadi 2030 (ZTBP 2030)

4. jarraipen-txostena

2026ko urria

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

TXOSTENAREN XEDEA

Erabakiak hartzeko informazio erabilgarria ematea eta ZTBP 2030 planaren ezarpenean egindako aurrerapenaren jarraipena egitea, ezarritako helburu eta jomugetan, *policy mix*eko tresnetan, espezializazio adimenduneko arloen bilakaeran eta baliabide ekonomikoen mobilizazioan oinarrituta.

IRISMENA

Txostenak hiru informazio iturri konbinatzen ditu, bakoitzak datuen erabilgarritasunaren araberako erreferentzia-aldi ezberdina izanik[1]:

Aldia	Bildutako informazioa	Txostenaren atalak
2021-2024	Aginte taula osoa eta RIS3 eremuen bilakaera	2. eta 4. atalak
2025	*Policy mix*a (laguntza tresnak)	3. atala
2021-2026	Eusko Jaurlaritzak aurrekontuan jasotako baliabide ekonomikoen mobilizazioa	5. atala

(1) Aldien arteko desfasea informazio estatistikoaren atzerapenaren ondorio da, azken datu erabilgarria 2024koa baita.


AURKIBIDEA

1. 2030eko ikuspegia: RIS eta EIS arloetako aurrerapausoak
2. ZTBP 2030en aginte-taula: helburu operatiboak betetzea
3. I+G+b sustatzeko tresnen ezarpena
   - *Policy mix*aren egoera 2025ean
   - ZTBP 2030en zutabe estrategikoekin lerrokatzea
4. Espezializazio adimendunaren oinarriak
   - RIS3 Euskadiren egoera 2024an
   - Espezializazio adimenduneko eremuen bilakaera
5. Baliabide publiko eta pribatuen mobilizazioa
   - Agertoki ekonomikoak: egungo egoera
   - Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuen bilakaera
6. Ondorioen laburpena
7. Eranskina: laguntza-programak sail bakoitzeko, ZTBP 2030en ildo eta zutabe estrategikoen arabera


1. 2030eko ikuspegia: RIS eta EIS arloetako aurrerapausoak

RIS 2025 (Europako Batzordea): Euskadi, berrikuntza-maila handiko eskualdea

Euskadik EB-27ko batezbestekoa baino puntuazio handiagoa lortu du (zehazki, **% 108,1**), eta **81**. postuan dago Europako **241** eskualdeen artean. Europako Batzordeak «bikaintasun-polo» deitzen dio, berrikuntza-maila ertaineko estatu batean kokatuta egonik berrikuntza-maila handikoak diren 11 eskualdeetako bat delako.




Iturria: Europako Batzordea. Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2025.



EIS 2025 (Eustat): Euskadi, berrikuntza-maila handiko herrialdea

Euskadik bere posizioa hobetu du EIS 2024ari dagokionez (% 111,5) eta sendotu egin da **berrikuntza-maila handiko herrialdeen** taldean (*strong innovator* delakoak), **EB-27ko eta Alemaniako batezbestekoa gaindituz**.

Europako berrikuntzako adierazleen panela EIS 2025 (EB-27 = % 100)



Iturria: Eustat. Europako berrikuntzako adierazleen panela -EIS 2025; Europako Batzordea. European Innovation Scoreboard (EIS) 2025.

2. ZTBP 2030en aginte-taula: helburu operatiboak betetzea

HELBURU OPERATIBOAK

4 helburu operatibo, 8 dimentsio eta 18 adierazle

Helburuak	Neurketa-esparrua	Adierazleak/Jomugak
1. Euskadiko I+G+b-ren emaitzetarako orientazioa maximizatzea.	Emaitza sozioekonomikoak	Adierazle bakoitzerako ezartzen dira 3 jomuga, 2023rako eta 2026rako tarteko bi jomuga eta, azkenik, 2030erako ZTBPren jomuga.
	Emaitza zientifikoak eta teknologikoak	
	Berrikuntza-emaitzak	
2. Enpresetan I+Gko eta berrikuntzako jarduerak sustatzea, bereziki ETEetan	Berrikuntzarako jarduerak eta baliabideak	
	Berrikuntzaren babesa	
3. Euskadiko I+G+b-ren nazioartekotzea indartzea.	Nazioarteko lidergoa eta lehiakortasuna	
4. Talentu zientifiko-teknologikoa sustatzea, batez ere emakumeen artean	Talentuaren eta bokazio berrien sustapena	
	Genero-berdintasuna eta emakume ikertzaile eta teknologoen sustapena	

HELBURU OPERATIBOEN BETETZE-MAILA (1/2)

2. ZTBP 2030en aginte-taula

Helburu operatiboak	Neurketa-esparruak		Adierazlea	*Abiapuntuko datuak* 2019 (hasiera koa)	Datu eguneratuak (2026ko apirila) 2019	2020	2021	2022	2023	2024	ZTBP 2030 planeko jomugak Jomuga 2023	Jomuga 2026	Jomuga 2030
1. helburu operatiboa. *Euskadiko I+G+b-ren emaitzetarako orientazioa maximizatzea.*	Emaitza sozioekonomikoak	1	Ezagutza intentsiboko enplegua	*% 17,7*	% 17,7	% 18,8	% 19,8	% 21,0	% 19,5	% 20,1	% 18,3	% 18,6	% 19,0
	Emaitza zientifikoak eta teknologikoak	2	Nazioartean gehien aipatutako % 10eko argitalpen zientifikoak	*% 18,8*	% 14,0	% 14,0	% 14,2	% 13,5	% 13,4	% 13,1	% 20	% 21	% 22
		3	Goi-mailako eta erdi-goi mailako teknologiako produktuen esportazioa	*% 55,3*	% 55,5	% 55,6	% 52,0	% 46,6	% 51,8	% 52,3	% 56	% 57	% 58
	Berrikuntza-emaitzak	4	Produktu berrien salmenta fakturazio osoarekiko	*% 18,3*	% 18,3	% 14,9	% 13,7	% 14,4	% 12,8	% 14,2	% 19	% 19,5	% 20
2. helburu operatiboa. *I+Gko eta berrikuntzako jarduera bultzatzea enpresetan, batez ere ETEetan*	Berrikuntzarako jarduerak eta baliabideak	5	I+Gko inbertsioa (M€)	*1.481*	1.481	1.490	1.647	1.795	2.002	2.114	1.630	1.892	2.300
		6	Enpresek finantzatutako I+Gko inbertsioa (M€)	*799*	799	813	933	1.004	1.111	1.161	810	920	1.100
		7	Enpresa berritzaileak produktuan edo negozio-prozesuan	*% 42,2*	% 42,2	% 39,9	% 40,5	% 43,3	% 46,1	% 50,6	% 50	% 55	% 60
		8	Inbertsioak berrikuntzan	*% 0,7*	% 0,7	% 0,7	% 0,6	% 0,6	% 0,6	% 0,6	% 0,8	% 0,9	% 1,0
	Berrikuntzaren babesa	9	EPO patente-eskaeren kopurua	*194*	194	213	224	255	262	326	220	240	260
		10	EB-eko marka komertzialen eskaera kopurua	*465*	436	400	466	506	511	E/E	600	700	800
		11	EB-eko diseinu industrialen eskaera kopurua	*125*	127	107	104	115	113	E/E	155	185	225
					ZTBP 2020		ZTBP 2030						

(1) Aldaketa metodologikoa: Lehen pisu berarekin zenbatzen ziren aipuak, baina gaur egun diziplina zientifikoaren arabera haztatzen dira, nazioarteko metodologiarekin lerrokatze aldera. Aurreko metodologiarekin, datua % 15,4 zen 2023an.

HELBURU OPERATIBOEN BETETZE-MAILA (2/2)

Helburu operatiboak	Neurketa-esparruak		Adierazlea	*Abiapuntuko datuak* 2019 (hasiera koa)	Datu eguneratuak (2026ko apirila) 2019	2020	2021	2022	2023	2024	ZTBP 2030 planeko jomugak Jomuga 2023	Jomuga 2026	Jomuga 2030
3. helburu operatiboa. *EAEko I+G+b-ren nazioartekotzea indartzea*	Nazioarteko lidergoa eta lehiakortasuna	12	I+Garen nazioarteko finantzaketa (M€)	*128*	128	126	131	144	160	162	145	170	200
		13	Horizon Europe proiektuen lidergoa[1]	*% 27,0*	% 24,3	% 20,9	% 18,7	% 15,7	% 10,9	% 17,6	% 20	% 20	% 20
		14	Horizon Europe-n parte hartzen duten Euskadiko enpresak	*77*	85	82	93	101	97	90	100	110	120
		15	Argitalpen zientifikoak nazioarteko lankidetzan	*1.651*	1.663	1.916	1.933	1.953	1.971	2.014	1.920	2.220	2.560
4. helburu operatiboa. *Talentu zientifiko-teknologikoa sustatzea, batez ere emakumeen artean*	Talentuaren eta bokazio berrien sustapena	16	Ikertzaile doktoreak	*% 30,9*	% 30,9	% 30,4	% 30,5	% 31,0	% 30,4	% 29,0	% 33	% 34	% 35
		17	STEM arloko graduetarako sarbide berriak	*% 29,1*	% 29,1	% 28,8	% 29,7	% 29,6	% 30,1	% 30,6	% 31	% 33	% 35
	Genero-berdintasuna eta emakume ikertzaileen sustapena	18	Emakume ikertzaileak	*% 36,3*	% 36,3	% 36,3	% 36,2	% 36,3	% 36,1	% 36,3	% 37,5	% 38,5	% 40,0
					ZTBP 2020		**ZTBP 2030**						

(1) Zuzendutako proiektuen ehunekoa kalkulatzeko, ez dira kontuan hartu ETE tresna-eskaeretako proiektuak, European Research Council (ERC), ez eta Marie Curie Skłodowska (IF) ekintzak ere, proiektu indibidualak direlako.

HELBURU OPERATIBOAK BETETZEARI BURUZKO BALORAZIOA (1/2)

1. I+G+bren emaitzetarako orientazioa maximizatzea: ezagutza intentsiboko enplegua % 20,1era iritsi da, eta 2030eko jomuga gainditu du dagoeneko. Goi-mailako eta erdi-goi mailako teknologiako esportazioek bi urte daramatzate hobetzen (% 52,3), eta produktu berrien salmenta % 14,2ra igo da; bi adierazleak abiapuntuko datuaren azpitik daude oraindik. Gehien aipatutako % 10eko argitalpen zientifikoak (% 13,1), aldaketa metodologiko batek eraginda, jomugaren azpitik daude.
2. I+G+b jarduera bultzatzea: I+Gko inbertsioa serieko gehienekora iritsi da (2.114 M€) eta 2026ko jomuga gainditu du; enpresek finantzatutakoak (1.161 M€) 2030eko jomuga gainditu du dagoeneko. Enpresa berritzaileen ehunekoak gehieneko historikoa lortu du bigarren urtez jarraian (% 50,6), eta 2023ko jomuga gainditu du. Europako patente-eskaerak % 24 hazi dira azken urtean, eta 2030eko jomuga gainditu dute. I+Gtik kanpoko berrikuntza-inbertsioak egonkor mantendu dira (% 0,6), eta markak eta diseinuak jomugen azpitik daude.

HELBURU OPERATIBOAK BETETZEARI BURUZKO BALORAZIOA (2/2)

3. Euskal I+G+b-aren nazioartekotzea indartzea: I+Gren nazioarteko finantzaketa 162 M€-ra iritsi da; 2023ko jomuga gainditu du eta 2026koaren % 95ean dago. Horizon Europe proiektuen lidergoa nabarmen igo da (% 10,9tik % 17,6ra) eta jomugara hurbiltzen ari da. Nazioarteko lankidetzako argitalpen zientifikoek (2.014) 2023ko jomuga gainditu dute. Horizon Europe-n parte hartzen duten enpresak (90) abiapuntuko datuaren gainetik daude, nahiz eta 2023arekin alderatuta jaitsi diren.
4. Talentu zientifiko-teknologikoa sustatzea: Talentu zientifiko-teknologikoa sustatzea: STEM arloko graduetarako sarbide berriak gehieneko historikora iritsi dira (% 30,6), 2023ko jomugatik hurbil (% 31). Emakume ikertzaileen presentzia egonkor mantendu da (% 36,3), eta ikertzaile doktoreak (% 29,0) abiapuntuko datuaren azpitik daude; bi adierazleek hobetzeko tartea dute jomugekiko.

3. I+G+b sustatzeko tresnen ezarpena



*POLICY MIX*A = I+G+b BULTZATZEKO EKIMENEN ETA PROGRAMEN MULTZOA

1. TREBAKUNTZA TEKNOLOGIKOA ETA ENPRESEN I+G-a SUSTATZEA
2. ENPRESA-BERRIKUNTZAKO EKOSISTEMA BABESTEA
3. GAITASUNAK BATERATZEA ETA LANKIDETZAN EGINDAKO I+G+b SUSTATZEA
4. GAITASUN ZIENTIFIKOAK ETA TEKNOLOGIKOAK SORTZEA
5. TALENTU ZIENTIFIKOA, TEKNOLOGIKOA ETA ENPRESARIALA KUDEATZEA
6. I+G+b SISTEMA IREKITZEA ETA NAZIOARTEKOTZEA

Eusko Jaurlaritzaren laguntza-programak (zeharkako programak, programa sektorialak, oinarrizko finantzaketa-programak eta beste batzuk)

Beste laguntza-tresna batzuk (ezagutza eta teknologia-azpiegiturak, laguntza-plataformak eta zerbitzuak, azpiegitura zientifikoak eta beste zerbitzu batzuk)

Foru-aldundien laguntza-programak: BFA, GFA eta AFA

Etorkizuneko orientazio estrategikoak

*POLICY MIX*AREN BILAKAERA

ZTBP 2030 planaren aurrekontuaren bilakaera *policy mix*eko tresnen kategorien arabera aztertzen badugu, talentuari eta enpresa-berrikuntzari eskainitako ehunekoen hazkundea nabarmentzen da, azken hori digitalizazio-programen bultzadaren ondorio da.

ZTBP 2030 planeko *policy mix*eko tresnen kategoriak	Aurrekontua (M€)			Laguntza-programak (#)		
	2021	2025	Δ21-25	2021	2025	Δ21-25
1. Trebakuntza teknologikoa eta enpresen I+Ga sustatzea	110,3	130,8	**+20,5 M€** *(+% 18,6)*	9	8	**-1**
2. Enpresa-berrikuntzako ekosistema babestea	70,4	89,6	**+19,2 M€** *(+% 27,2)*	43	41	**-2**
3. Gaitasunak bateratzea eta lankidetzan egindako I+G+b sustatzea	43,6	51,5	**+7,9 M€** *(+% 18,3)*	5	5	**0**
4. Gaitasun zientifikoak eta teknologikoak sortzea*	132,3	147,7	**+15,4 M€** *(+% 11,7)*	11	11	**0**
5. Talentu zientifikoa, teknologikoa eta enpresariala kudeatzea	37,5	52,1	**+14,6 M€** *(+% 38,9)*	13	13	**0**
6. I+G+b sistema irekitzea eta nazioartekotzea	E/A	E/A	E/A	4	3	**-1**
GUZTIZRA**	**394,0**	**471,7**	**+77,7 M€** *(+% 19,7)*	**85**	**81**	**-4**


(*) KONTRATU-PROGRAMETAKO 26,4 milioi euro sartu dira (Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateen Bikaintasun Zientziaren ildoa 2025ean). BERC eta IKERTALDE programak «urtekotu» egin dira, lau urtean behin deialdiak dituzten laguntza-programak direlako. IKZ 2026-2029 programaranzko bilakaera izango duen 2025eko zuzeneko laguntza iragankorra eta puntuala barne hartzen du.

(**) 6. lerroko ("I+G+b sistemaren nazioartekotzea irekitzea") 2 laguntza-programa (ERA-NET) Hazitek programaren bidez finantzatu ziren (CETPko Itsas Energiak Erakusteko eta Baliozkotzeko Programako laguntzekin batera).

Iturria: Innobasquek egina, deialdien aginduak oinarri hartuta.

ZTBP 2030 PLANAREN ZUTABE ESTRATEGIKOAK


3 Zutabe Estrategiko + elementu nagusi bat



*POLICY MIX*AREN LERROKATZEA ZTBP-REN ZUTABEEKIN

2021az geroztik zutabe estrategiko guztietako aurrekontuetan igoera orokorra eman da, eta nabarmentzekoak dira «Lidergo teknologiko industrialean» (+44 milioi euro) eta «Bikaintasun zientifikoa» (+18 milioi euro).

Euskadi 2030 ZTBPren aurrekontuaren bilakaera zutabe estrategikoen[1] arabera (€, #; 2021-2025 deialdia)



(1) *Programak banatzeko erabili den irizpide orokorra, salbuespenen batekin bada ere, honako hau izan da: «Lidergo teknologiko eta industriala» atalean, ITEJSen (Emaitek Industria Hobea izan ezik), ELGNASen (DCAM) eta OSren programak jasotzen dira nagusiki; «Bikaintasun zientifikoa» atalean, ZUBSen eta Emaitek Industria Hobearen programak; «Berrikuntza irekia» atalean, ELGNASen programak (DCAM izan ezik), foru-aldundien programak eta aukera-lurraldeen laguntzak; eta «Talentua» atalean, ZUBSen programak (ikus eranskina).*

Iturria: Innobasquek egina, deialdien aginduak oinarri hartuta.

4. Espezializazio adimendunaren oinarriak




RIS3 EUSKADI 2030 ESTRATEGIA



RIS3 EUSKADIREN EGOERA

2024an, RIS3 arloen barruko I+Gko inbertsioak % 75 baino gehiago izan ziren bigarren urtez jarraian, abiapuntuko datua baino puntu bat baino gorago, hain zuzen.



Guztizko inbertsioaren bi heren baino gehiago lehentasun estrategiko hauetara bideratu ziren: industria adimenduna, energia garbiagoak eta osasun pertsonalizatua.

Iturria: Eustaten datuak oinarri hartuta, Innobasqueren laguntza teknikoarekin. RIS3 eremu bakoitzerako pisuen esleipena, jarduera ekonomikoko adarren artean. Kalkulu-prozedura hori ZTBPren RIS3 eremuen bilakaera aztertzeko erabiltzen da soilik.

RIS3 EUSKADI EREMUEN BILAKAERA

ZTBP 2030 hasi zenetik, espezializazio adimenduneko arloetako I+Gko inbertsioak % 30,5 hazi dira (gainerako esparruetan, berriz, % 22,3).


I+Gko barne-gastua, arloaren arabera (mila €, %; 2019-2024)

Eremua		2019	2020	2021	2022	2023	2024	2021-2024 bilakaera
Lehentasun estrategikoak	Industria adimenduna	678.100	679.554	732.330	798.081	913.780	964.640	+% 31,7
	Energia garbiagoak	170.599	178.477	201.435	218.473	243.114	255.955	+% 27,1
	Osasun pertsonalizatua	121.377	121.102	145.563	163.734	182.706	191.287	+% 31,4
Aukera-esparruak	Elikadura jasangarria	44.106	47.853	50.638	50.710	58.741	61.843	+% 22,1
	Hiri jasangarriak	48.359	47.501	51.956	58.003	62.103	67.923	+% 30,7
	Euskadi Sortzailea	10.203	11.105	10.307	11.399	13.454	13.215	+% 28,2
	Ekoberrikuntza	23.927	24.178	26.441	28.817	33.116	35.615	+% 34,7
RIS3 eremuak, guztira		**1.096.671**	**1.109.770**	**1.218.670**	**1.329.217**	**1.507.014**	**1.590.478**	**+% 30,5**
Beste batzuk		384.733	380.268	428.287	465.487	495.451	523.677	+% 22,3
Euskadiko I+Gko barne-gastua		**1.481.404**	**1.490.038**	**1.646.957**	**1.794.704**	**2.002.465**	**2.114.155**	**+% 28,4**
		ZTBP 2020		**ZTBP 2030**				


Azpimarratzekoak dira, ehunekotan, ekoberrikuntzaren, industria adimendunaren eta osasun pertsonalizatuaren hazkundea, trantsizio teknologiko-digitalari, sozialari eta sanitarioari lotutakoak, eta ingurumen-jasangarritasunari lotutakoak.

Iturria: Eustaten datuak oinarri hartuta, Innobasqueren laguntza teknikoarekin. RIS3 eremu bakoitzerako pisuen esleipena, jarduera ekonomikoko adarren artean. Kalkulu-prozedura hori ZTBPren RIS3 eremuen bilakaera aztertzeko erabiltzen da soilik.

5. Baliabide publiko eta pribatuen mobilizazioa




AGERTOKI EKONOMIKOAK: EGUNGO EGOERA



AGERTOKI EKONOMIKOAK: EGUNGO EGOERA

I+Gko inbertsioetara bideratutako baliabide ekonomikoen mobilizazioa 2.114 milioi eurokoa izan zen 2024an, ZTBP 2030en aurreikuspenen % 23,7 gehiago eta jada 2026rako ezarritako eszenatokiaren gainetik.



EUSKO JAURLARITZAREN AURREKONTUEN BILAKAERA

Eusko Jaurlaritzaren I+G+b sustatzeko aurrekontuak 718 milioi eurotara iritsi dira 2026an, urteko batez besteko hazkundea % 6,6 izanik, ZTBP 2030n konprometitutako % 6a baino gehiago eta urte horretarako kalkuluak gaindituz.

	Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu onetsiei buruzko datuak							ZTBP 2030en zenbatespenak (urteko batez bestekoa +% 6)		
I+G+b sustatzeko aurrekontuak	**2020**	**2021**	**2022**	**2023**	**2024**	**2025**	**2026**	**2023**	**2026**	**2030**
EUSKO JAURLARITZA (milioi eurotan) (honako partida hauek sartzen dira: zientzia- eta unibertsitate-ikerketa, teknologia- eta industria ikerketa, nekazaritzako elikagaien ikerketa, ikerketa sanitarioa, ikerketa eta berrikuntza publikoa eta berrikuntzako funts estrategikoa)	490,4	535,8	587,8	624,7	641,5	679,8	717,9	580	690	870
Urteko batez besteko hazkundea (ehunekoak)		+% 6,6						+% 6		
ZTBP 2020		**ZTBP 2030**								

Oharra: Eusko Jaurlaritzaren funts propioetatik datorren finantzaketa bakarrik sartzen da, ezohiko eta koiunturazko ekarpenak alde batera utzita, hala nola Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM) eta Elikagaien Kalitate Programa (EKP): Food Global Ecosystem.

6. Ondorioen laburpena



TXOSTENAREN ONDORIO NAGUSIAK (1/2)

- **Euskadi berrikuntza maila handiko lurralde gisa finkatu da Europako eskualdeen eta herrialdeen artean.**
- **ZTBP 2030 planean ezarritako helburu operatiboen betetze-mailari dagokionez, 18 adierazleetatik 7k 2023ko jomuga gainditu dute, eta 12k bilakaera positiboa izan dute 2023arekin alderatuta. Horietako hiruk 2030eko jomuga gainditu dute dagoeneko.**

  Nabarmentzekoak dira Europako proiektuen lidergoaren, Europako patente-eskaeren (+% 24) eta enpresa berritzaileen ehunekoaren urte arteko aurrerapausoak. I+Gko inbertsioak eta haren enpresa-finantzaketak gehieneko historikoak lortu dituzte, eta 2026ko eta 2030eko jomugak gainditu dituzte, hurrenez hurren.

  Jomugekiko hobetzeko tarte handiena duten adierazleak hauek dira: euskal enpresek Horizon Europe-n duten parte-hartzea, ikertzaile doktoreak eta gehien aipatutako % 10eko argitalpen zientifikoak (aldaketa metodologiko batek eraginda).

- **Laguntza-programetan (*policy mix*) mobilizatutako baliabideak 472 milioi eurokoak izan ziren 2025ean (+% 20, 2021arekin alderatuta), 81 programaren bidez.**

  Aurrekontuak gora egin du tresna-kategoria guztietan 2021arekin alderatuta (ZTBP 2030 ezarri zen lehen urtea). Nabarmentzekoak dira talentuari (+% 39) eta enpresa-berrikuntzari (+% 27) zuzendutako partidak. Enpresa-berrikuntzaren hazkundea digitalizazio aurreratuko programak indartu izanaren ondorio da.

  Aurrekontua zutabe estrategiko guztietan ere hazi da. Hiru zutabek 10 milioi eurotik gorako igoerak izan dituzte: «Lidergo Teknologiko Industriala» (223 M€ 2025ean; +44 M€), «Bikaintasun Zientifikoa» (137 M€; +18 M€) eta «Talentua» (52 M€; +15 M€).

TXOSTENAREN ONDORIO NAGUSIAK (2/2)

- **Euskal I+Ga gero eta espezializatuagoa da: RIS3 eremuek I+Gko inbertsioaren % 75,2 bildu zuten 2024an, abiapuntuko urteko (2019) % 74,0aren aldean.**

  2021etik 2024ra, ZTBP 2030en lehen lau urteetan, espezializazio adimenduneko arloetako I+Gko inbertsioa % 30,5 hazi zen, eta gainerako esparruetakoa % 22,3. Industria adimendunak, energia garbiagoek eta osasun pertsonalizatuak I+Gko inbertsio osoaren bi heren baino gehiago biltzen dute.

- **Eusko Jaurlaritzaren I+G+b sustatzeko aurrekontuak 718 milioi eurora iritsi dira 2026an, eta 2020tik urteko batez beste % 6,6 hazi dira. Erritmo hori ZTBP 2030ean konprometitutako % 6aren gainetik dago, eta 2026ko aurrekontuak urte horretarako zenbatespena (690 M€) gainditzen du.**

- **I+Ga finantzatzeko mobilizatutako baliabideak 2.114 M€-koak izan ziren 2024an, ZTBP 2030en aurreikuspenak baino % 23,7 gehiago, eta 2026rako ezarritako eszenatokia gainditu dute dagoeneko.**

7. Eranskinak



7.1 Laguntza-programak, Eusko Jaurlaritzako sailaren arabera (2025eko datuak)

ITEJS (% 61) eta ZUBS (% 25) dira Eusko Jaurlaritzaren sailen artean *policy mix*eko pisu handiena dutenak

Administrazio publikoak		2025		
		Aurrekontua (M€)	LP kopurua	% Aurrekontua
Eusko Jaurlaritza (sailak)	Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna (ITEJS)	289,4	19	% 61
	Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza (ZUBS)*	118,6	18	% 25
	Hezkuntza (HS)	7,0	2	% 1
	Osasuna (OS)	6,6	4	% 1
	Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza (ELGNAS)	5,8	4	% 1
	Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa (TMKS)	1,3	1	% 0
	Kultura eta Hizkuntza Politika (KHPS)	0,3	2	% 0
	Ekonomia, Lana eta Enplegua (ELES)	0,3	1	% 0
Foru-aldundiak	Arabako Foru Aldundia (AFA)	2,8	2	% 1
	Bizkaiko Foru Aldundia (BFA)	25,3	11	% 5
	Gipuzkoako Foru Aldundia (GFA)	14,9	17	% 3
	Guztira	472,1	81	% 100

(*) EUSeko unibertsitateen kontratu-programak sartu dira, 2023-2026 Euskal Unibertsitate Planaren 2025. urteko bikaintasun-zientziaren ildoari dagozkionak (26,4 milioi euro); eta BERC eta IKERTALDE programak «urtekotu» egin dira, lau urtean behin deialdia egiten duten programak direlako. 2025ean IKZei ematen zaien zuzeneko laguntza iragankorra eta puntuala barne hartzen du, 2026-2029 IKZ programaranzko bilakaera izango duena.

Aurrekontuan deialdietan argitaratutako zenbatekoak sartzen dira, eta, beraz, ezin dira alderatu aurrekontuari eta estatistikari buruzko informazioarekin.

7.2 ZTBP Euskadi 2030ren laguntza-programak, ildoka (2025eko datuak)



1. TREBAKUNTZA TEKNOLOGIKOA ETA ENPRESEN I+G-a SUSTATZEA

8	131M€
Laguntza programa (LP) kopurua	LP aurrekontua

Azalpena / Ezaugarri nagusiak

Programek babestutako jarduerak:

- Ikerketa aplikatuko, garapen esperimentaleko eta transferentzia teknologikoko **programa lehiakorrak**
- Erakusketa-, baliozkotze- eta berrikuntza-**proiektuak** babesten ditu

Parte hartu duten sailak eta erakundeak:

- **ITEJS** finantzatzaile nagusia
- **BFA**
- **GFA**
- **OS**

Onuradunak eta laguntza-eremuak:

- **Enpresak**
- **ZTBES Eragileak**
- ZTBP Euskadi 2030eko **arloekin lerrokatzea,** Industria adimenduna, energia garbiagoak eta osasun pertsonalizatua nabarmenduz

Laguntza-programak (LP): Hazitek; Smart Industry - Teknologia Kuantikoak; Transferentzia teknologikoa (BFA); Gipuzkoa Quantum; BDIH Konexio; Baliosasun; BIOEFen Medtech ekimena; BIQAIN - Teknologia kuantikoekin lotutako proiektuak bultzatzea (BFA).

2. ENPRESA-BERRIKUNTZAKO EKOSISTEMA BABESTEA

41	90M€
Laguntza programa (LP) kopurua	LP aurrekontua

Azalpena / Ezaugarri nagusiak

Programek babestutako jarduerak:

- **Enpresa-berrikuntza** sustatzeko programak, enpresen **produktu eta negozio-prozesuen** berrikuntza eta **makineria-inbertsioak** egitea ahalbidetzen dituztenak, merkatutik hurbil.
- **(Barne)ekintzailetza eta erakunde/sare** (GEHEB, BEAZ) programak, enpresa berritzaileak eta OTEBak sortzeko.
- **Laguntza-programak** I+G+b proiektuak **sortzeko** edo I+G+b proiektuak **gauzatzeko** aukera-esparruetan (elikadura, etab.)
- Enpresei ezagutzak **transferitzeko** programak

Parte hartu duten sailak eta erakundeak:

- **Foru-aldundiak,** finantzatzaile nagusiak
- **ITEJS**, **KHPS, HS, ELGNAS, TMKS, ELES**

Onuradunak eta laguntza-eremuak:

- Enpresak (batez ere **ETEak**)
- **Ekintzaileak eta ZTBESaren eragileak** (enpresen sorrera)
- RIS3 lehentasunekin eta nitxoekin **lerrokapena**, batez ere, **Industria Adimenduna (4.0 industria), Elikadura jasangarria eta Ekoberrikuntza**

Laguntza-programak (LP): Elikadura- eta zur-katearen digitalizazioa; Fast Track Innobideak; Mikroenpresa Digitala Inplantalariak; Industria Digitala; Enpresen Zibersegurtasuna; EAEko arrantza- eta akuikultura-sektorerako laguntzak; Onekin; Ekintzaile; Bitartez; Araban ekitea (AFA); Berrikuntza eta inbertsio aurreratua sustatzeko 2i Plana (BFA); Berrikuntza, nazioartekotzea eta inbertsioa osorik laguntzeko 3i Programa (BFA); Bizkaia Sortzailea; Bide-berrikuntza (BFA); Ekintzailetza eta enplegu egonkor eta kalitateko proiektu berritzaileak (BFA); Trantsizio berdea (3. lerroa); Smart Mobility Industry (GFA); Nazioartekotze Programa: produktu berrien merkaturatzea (GFA); Txekintek-Barnetekin (GFA)*; Gipuzkoa Digitala; Gipuzkoa Digitala-Zibersegurtasuna; Sukalberri (GFA); Ikerketa eta berrikuntza gizarte-arretan (GFA); Etorkizuna Eraikiz-Misioak (GFA); Tkgune; Enpresaren Gizarte Erantzukizuna eta Langileen Partaidetza enpresetan; Hazinnova; Ekintzailetza eta turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzeko laguntza; Ekintzaile+; Kloud; Ekintzailetza eta digitalizazioa enpresen sortzapenean eta merkaturatzean; Renove Smart Industry; Handitu Innova; Trantsizio Digitala (BFA); KSIgune: Konexioak; Enpresa berritzaile berriak (BFA); Álava Innova-Digitaliza (AFA); Berrikuntzako gizarte-proiektuak (GFA); BerriTEK + (GFA); Talentua Ernatu: TEK (GFA); Datuaren Heldutasunaren Diagnostikoa.*

3. GAITASUNAK BATERATZEA ETA LANKIDETZAN EGINDAKO I+G+b SUSTATZEA

5	52M€
Laguntza programa (LP) kopurua	LP aurrekontua

Azalpena / Ezaugarri nagusiak

Programek babestutako jarduerak :

- **Programa lehiakorrak** funtsezko ikerketakoak eta ikerketa aplikatukoak
- **Lankidetzako proiektu jakinei** laguntzea

Parte hartu duten sailak eta erakundeak:

- **ITEJS** erakunde finantzatzaile nagusia
- **OS, HS, ZUBS eta GFA**

Onuradunak eta laguntza-arloak:

- **ZTBESaren eragileak**
- **ETEak**
- Beste erakunde batzuk
- **Espezializazio arloekin lerrokatzea** (Elkartek)

Laguntza-programak (LP): Elkartek; PUE; Berrikuntza- eta ekintzailetza-proiektua LH zentroetan; osasun-arloko I+G proiektu estrategikoetarako laguntzak; terapia aurreratuen sustapena (GFA).

4. GAITASUN ZIENTIFIKOAK ETA TEKNOLOGIKOAK SORTZEA*

11	148M€
Laguntza programa (LP) kopurua	LP aurrekontua*

Azalpena / Ezaugarri nagusiak

Programek babestutako jarduerak :

- Oinarrizko finantzaketa duten programak ZTBES eragileen **gaikuntzarako**
- Bekak **ikertzaileen mugikortasun eta prestakuntzarako**
- **Oinarrizko eta aplikatutako I+Gko** programa lehiakorrak

Parte hartu duten sailak eta erakundeak:

- **ITEJS** eta **ZUBS** finantzatzaile nagusiak
- **OS** eta **GFA**

Onuradunak eta laguntza-eremuak:

- **ZTBESaren eragileak**
- **Unibertsitateko ikerketa-taldeak eta osasuneko azpisistema**
- **Zeharkako programak, ZTBP Euskadi 2030eko arlo zehatzei esleitu gabeak**

*Laguntza-programak (LP): Emaitek Industria Hobea; Ikerketa-taldeak; Kontratu-programak; PIBA; Azpitek; BERC Programa; Gipuzkoako ZTB Sarea; Ikerketa-jarduera areagotzeko osasun-arloko ikerketa- eta garapen-proiektuak; Inker; Bilera zientifikoak antolatzeko laguntzak (Osasuna); IKZ** Programa.*

(*) KONTRATU-PROGRAMETAKO 26,4 M€ barne (EUSeko unibertsitateen Bikaintasuneko Zientzia ildoa 2025). BERC eta IKERTALDE programak "urtekotu" dira, lau urtetik behin deialdiak dituzten laguntza-programak direlako.
(**) IKZentzako zuzeneko laguntza iragankor eta puntuala da 2025ean, eta IKZ 2026-2029 programarantz eboluzionatuko du.

5. TALENTU ZIENTIFIKOA, TEKNOLOGIKOA ETA ENPRESARIALA KUDEATZEA

13	52M€
Laguntza programa (LP) kopurua	LP aurrekontua

Azalpena / Ezaugarri nagusiak

Lagundutako tresnak eta jarduerak:

- **Ikertzaileak erakartzeko** programak
- **Ikertzaileak kontratatzeko** laguntzak
- Beste batzuk: ikertzaileen prestakuntza eta bizitzan zeharreko ikaskuntza
- **Enpresa-talentua** gaitzea

Parte hartu duten sailak eta erakundeak:

- **ZUBS** finantzatzaile nagusia
- **ITEJS eta ELGNAS**
- **BFA eta GFA**

Onuradunak eta laguntza-eremuak:

- **Ikertzailea/k**
- **ZTBESaren eragileak eta enpresak** (kontratazioa)
- **Zeharkako programak, ZTBP Euskadi 2030eko arlo zehatzei esleitu gabeak**

Laguntza-programak (LP): Ikerbasque-Research Fellows; Ikerbasque-Research Associate; Ikerbasque-Research Professors; Egonlabur; Doktoratu Aurreko Programa; Doktoratu Ondoko Programa; Ikermugikortasuna; Ikermugi+; Bikaintek; Ikasiker; Hobekuntza Profesionala (BFA); Ekonomia zirkularraren arloko ikerketa eta berrikuntzarako bekak (GFA); Gipuzkoa Fellows (GFA).

6. I+G+b SISTEMA IREKITZEA ETA NAZIOARTEKOTZEA*

3	E/A
Laguntza programa (LP) kopurua	LP aurrekontua*

Azalpena / Ezaugarri nagusiak

Babestutako tresnak eta jarduerak:

- **Europako sareak** (ERANET) gauzatzen diren hainbat arlotako nazioz gaindiko I+G proiektuak ETEen arteko lankidetzan
- Nazioarteko **topaketa eta bilera zientifikoak antolatzeko laguntzak**

Parte hartu duten sailak eta erakundeak:

- **ITEJS** erakunde finantzatzaile nagusia
- **ZUBS**

Onuradunak eta laguntza-eremuak:

- **ETEak**
- **ZTBESaren eragileak**
- **ERANET bakoitzari laguntzeko eremu espezifikoak,** bereziki Industria Adimenduna eta Energia Garbiak.

(*) ERA-NET programak Hazitek Lehiakorraren bidez finantzatu dira (CETPn Itsas Energiak Erakusteko eta Baliozkotzeko Programaren EEEren laguntzekin batera).

Laguntza-programa (LP): M-ERA.NET (ERA-NET); CETP (ERANET) eta Ikerbilerak

7.3 Laguntza-programak, ZTBP Euskadi 2030 planeko zutabe estrategikoen arabera

Eranskinak: Laguntza-programak, ZTBP 2030 planeko zutabe estrategikoen arabera

Bikaintasun zientifikoa

- Emaitek Industria Hobea
- Kontratu-programak
- PIBA
- BERC programa
- Osasuneko I+G proiektu estrategikoetarako laguntzak
- Osasun-arloko I+G proiektuak, ikerketa-jarduera areagotzeko
- Ikerbilerak
- Ikerketa-taldeak
- Inker
- Bilera zientifikoak antolatzeko laguntzak
- IKZ programa*

Lidergo teknologiko industriala

- Hazitek
- Smart Industry – Teknologia Kuantikoak
- BDIH Konexio
- Industria digitala
- Enpresen Zibersegurtasuna
- Azpitek
- Elkartek
- PUE
- CVAMaren digitalizazioa
- Baliosasun
- Transferentzia teknologikoa (BFA)
- Gipuzkoa Digitala (GFA)
- Gipuzkoa Digitala-Zibersegurtasuna
- Gipuzkoa Quantum (GFA)
- Gipuzkoako ZTB Sarea (GFA)
- M-ERA.NET
- CETP
- Kloud
- Renove Smart Industry
- BIOEFen Medtech ekimena
- Trantsizio digitala
- BIQAIN - Teknologia kuantikoekin lotutako proiektuak bultzatzea
- BerriTEK+
- Terapia aurreratuen sustapena

Berrikuntza irekia

- Fast Track Innobideak
- Hazinnova
- Mikroenpresa Digitala Inplantalariak
- Arrantzaren eta akuikulturaren sektorerako laguntzak
- Ekintzaile
- Bitartez
- Tkgune
- Berrikuntza- eta ekintzailetza-proiektuak LHko zentroetan
- Onekin
- Ekintzailetzako eta enplegu egonkorreko eta kalitateko proiektu berritzaileak
- Enpresaren gizarte-erantzukizuna eta langileen parte-hartzea enpresetan
- Ekintzailetzari eta turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzeari laguntzea
- Ekintzaile+
- Ekintzailetza eta enpresen sustapena eta merkaturatzea digitalizatzea
- Araba Berrikuntza-Digitalizazioa (AFA)
- Araban ekitea (AFA)
- 2i (BFA)
- 3i (BFA)
- Bizkaia sortzailea (BFA)
- Bide-berrikuntza (BFA)
- Smart Mobility Industry (GFA)
- Nazioartekotzea: produktu berriak merkaturatzea (GFA)
- Txekintek-Barnetekin (GFA)
- Sukalberri (GFA)
- Ikerketa eta berrikuntza gizarte-arretan (GFA)
- Etorkizuna Eraikiz-Misioak (GFA)
- Handitu Innova
- Enpresa berritzaile berriak (BFA)
- Trantsizio berdea (3. lerroa)
- KSIgune: Konexioak
- Berrikuntzako gizarte-proiektuak (GFA)
- Datuaren heldutasunaren diagnostikoa

Talentua

- Ikerbasque: Research Fellows
- Ikerbasque: Research Associate
- Ikerbasque: Research Professors
- Doktoratu aurreko programa
- Doktoretza ondoko programa
- Ikermugikortasuna
- Ikermugi+
- Egonlabur
- Ikasiker
- Bikaintek
- Hobekuntza profesionala (BFA)
- Gipuzkoa Fellows (GFA)
- Ekonomia zirkularraren arloko ikerketa eta berrikuntzarako bekak
- Talentua Ernatu: TEK

(*) Zuzeneko laguntza iragankorra eta puntuala 2025ean, IKZ 2026-2029 programarantz eboluzionatuko duena

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

innobasque

PCTI 2030
RIS3EUSKADI

Talentua garatuz, auzolana

